

Gauerako ipuinak

Daniel Carballo

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1988



Zumaia Udala

*enkarra
txanpau*



Gauerako ipuinak

Daniel Carballo

Julene Azpeitia 1. ipuin lehiaketa

1988

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Daniel Carballo (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Behin batean baso ilun batean, ontza zahar bat bizi zen. Ontza zahar honek, gauero, iluntasunean, istorio bat kontatzen zuen. Beti berbera. Norbaitek noizbait bere bihotzean idatziko zuenaren itzaropena ez zuen galtzen. Ontza zaharra betirako gauaren zain zegoen.

Beste behin batean, ilargi beteko gau batean, ontza zaharrari entzule berezi bat hurbildu zitzaion. Belarri ederreko xagutxo bat alegia. Alproja aurpegia bazuen ere, bihotz handikoa zen.

Ontza zaharrak xagutxo begiratu ere egin gabe hasi zen hizketan

—Gutxik ezagutu dugun garaian gertatu zen istorio hau. Ni Jaun Nagusien ordezkari nintzenekoa. Nire eginbeharra Hamalau garren jaunaren pausuak bistatik ez galtzea zen. Hau haur bat zenean ezagutu nuen, bere bizitzako momenturik zailenean...

—Gela txikiaren txokotxo batean, ohearen gainean, ile gorrizko mutiko bat etzanda. Pentsakizun batzuen oroimenean leporaino sarturik, egurrezko sabaiari begira dago. Badirudi alaitasuna gela kanpoan utzi duela, bere begien espresio tristeak diotenaren arabera... Gela txikia da, Jostailu ugariz beteta dago eta denak aurrea bezain politak. Ohearen alboan egurrez egindako zaldi eder bat. Hau beste jostailu ugari bezala aitonak egin dio. Zaldian jarrita dituen tramankulu guztiak, aitonaren laguntzaz, betetzen joan zen, denak abentura eta bidaiarekin zerikusia zutela jakinik.

Cristian Burgenton Cuasimodo; Kit herrialdeko Burgentondarren familiakoa. Burgentodarrak, esandako lurralde honetan, oso ezagunak ditugu. Funtsean, beraiek baititugu lurralde honen kolonizatzaile. Burgentondar familia txiki bat, Yvano Burgenton buru zela, Mendi Urdinetatik jaitsi ziren, bizitza berri eta hobeago bat hastera. Lurralde honek ibai bat bakarrik du Hogeitoi legoatan; esan besterik ez dago zeinen gogorra den. Aipatutako ibai honen izena Tra dugu; lurraldearena bezala, Kit, Burgentodarrak jarria. Famili xeble honi, leku guzietako beste asko elkartu zitzaizkien, Polinton herrixkari bizia emanez. Besteen artean: Balutarrak, mendebaldeko lautadetatik, Stipit-tarrak, ipar-mendebaldeko lurretatik eta Cuasimodotarrak, hegoaldeko mendixketatik; ezagunen artean.

Cristianen aitaren aldetik, odol bereziko Burgentodarrak ditugu; Yvano zaharraren iloba baita da. Amaren aldetik berriz, Cuasimodotarrak; merkatari

jendea gehiena, ez dira oiloaren aurrean hain azkar beldurtzen, beraz geure Cristian kasta onetik datorrela jakin ezazue. Guzi honek, eta magiarekiko zuen erakarpenak, bultzatu zion aitonari modu berezi batean hezten: azti izan nahi baitzuen.

Gurasoak txikia zenean hil zitzaizkion, beraz aitonaren kargu geratu zen, amonaren faltan, hau ere hil baitzitzaien, gaixoa. Oraingoan aitona da joan behar dena, hortik Cristianen tristura. Cristian hits dago. Gela txikiko ate txikia ireki da. Sendagilea sartzen da:

—Cristian, aitonak zurekin hitz egin nahi du —dio, ahots isil baina gihartsu batekin— ez iezaiozu asko nekarazi, oso ahula dago. —Honekin gela uzten du, isiltasunaren erreinuan sartuz. Cristian ohetik jaiki eta abiatzen da, gogorik gabeko beldur batekin, aitonaren gelara.

—Sar zaitetz —dio aitonak— ez zaidazu begi goibel horiekin begira, oraindik zure aitona naiz... —hau esateak nekatu balu bezala, arnasa sakon eta estu bat hartzen du.

—Ez da hori aitona, bidaiaren ideiak pixka bat beldurtu egiten nau, ni ez bainago ongi prestatu —burumakur aitonaren ohe ertzean esertzen da.

—Begira Cristian, Burgentondarrok zugar nire eskutik itxaroguziak ditugu —arnasa sakonki hartu eta— noizbait zerbait izan nahi baduzu orain da momentua... hau da zure etorkizuna —begiak itxita, arnasketa estu bai eutsiz lo hartzen du, agian ez da gehiago esnatuko.

Cristian itzalaren pausuak bailiren, gela uzten. Biharamunean, aitona ez zen gehiago esnatu, albistea Luxit Cuasimodok ekarri zuen, gosariarekin batera. Luxit Cristianen izeko da. Jende ugari hurbildu zen Burger-Behera, dolumina ematera batzuk eta beste gauzatar beste hauek:

—Kaixo Cristian —beste gauza hobeagorik egiteko ez balu bezala, sartu zen Balutarren senide zaharrena, Polu Balu alegia— alaitu ezazu hildako aurpeggi ho...ri —eta esan zuen astakeria ahanzteko, gaiak aldatu zuen— bidaia luze bat egin behar duzula eta —bizkarra baino handiagoa zuen aurpegi batekin, esan zuen— gu geu prest egongo ginatekeela etxea zaindu edo, merke badago erosteko —honek Cristian jenio txarrez jarri zuen eta bota zuen esanez:

—Sentitzen dut lagun maiteok, baina etxe hau nire izeba maitagarriarena da, beraz berarekin hitz egin ezazue —lasaitu zen Cristian— beraz ez bazazue axola irten zaitetzte etxe honetatik zikintzen ari da eta —sabelean ostikada bat bezala hartu zuten hau Balutarrak. Agurtu gabe irten ziren Burger-Beheratik.

Eguerdi aldera, bazkaldu baino lehen idazkari jauna sartu zen.

Aitonaren testamenduari irakurketa emateko.

Egongelan bildu ziren bildu beharrekoak; Luxit Cuasimodo eta bere senar Ronni Eston, umerik gabeko famili hau oso langile eta umila zen. Ameli Kardigan, hau Cristianen amonaren ahizpa zen, idazle oso ezaguna lurralde haietan, bere landare, ipuin, abere eta esaeren liburu ugariagaitik. Azkenik, Beron Burgenton, aitonaren anaia gaztea.

Denak bildurik hasiera eman zitzaion testamendu irakurketari:

Etxearen lur eta jabegoak, nire semeak eta bere emazteak nahiari erantzunez, Luxit eta Ronni Estonentzat izango dira emazteak gizonaren

abizena hartzen baitzuen garai haietan ezkontza ondoren —etxeko administrazioa nire anaia Beroni uzten diot, Eston familiarekin batera eraman dezan. Ameli Kardiganentzat, nire idatzi guziak, beraiekin liburuxka bat egiteko edo bere probetxurako. Azkenik —jarraitu zuen— Cristiani Gaueko Tximista emango diot, bere lagun honekin urruneraino hel dadin. Zaldi hau oso leiala zen. Cristian txikitatik ezagutzen zuen, dagoeneko, oso lagun handiak ziren. Zaldi eder hau, Cristianen aitaren anaiaren ukuiluan jaio zen; ikatza bezain beltza eta ikusmena baino azkarragoak diren arraza bateko zaldia da. Aitonari oparitu zion, eta honek Cristianen jostailu bezala hezi, gelako zaldia ez baitzen nahikoa Cristianen gogoak betetzeko.

Dena amaiturik, Ameli, agure xarmant, txiki eta begi urdin bat Cristianengana hurbildu zen. Agur bero bat eman ondoren, jakatik kate bat atera zuen. Haren zintziik, eraztun bat zegoela. Eraztun hura Yvano Burgentonena izan zen, eta familiaren partaide zahar edo garrantzitsuenak eraman ohi zuen, azkena eraman zuena aitona izan zen, eta Ameliri eman zion gordetzeko bere heriotzaren eguna arte, Cristiani emateko.

—Baina Ameli, nik ez dut hainbeste merezi, gainera gerta daiteke inoiz ez itzultzea... —eta Amelik eskutik heldu eta gelatik atera zuen esanez:

—Itxaropena da azkena galtzen den gauza, beraz ez iezaiozu eraztun honi hainbeste garrantzi eman, zeu baitzara garrantzitsuena —eskailera batzuk igo eta aitonaen gelara sartu ziren.

Gela txukun baina zaharra zen aitonaena. Mahaiaren gainean zegoen liburuxka gorri bat hartu zuen eskutan eta Cristiani eman zion.

—Tori, urteotan aitonaekin ikasi dituzun gauza gehienak eta garrantzitsuenak daude hemen idatzita. Neuk ere gauzatxo batzuk idatzi ditudalarik —Cristanek bi eskuekin heldu zuen, beretzat oso baliotsua baitzen. Agurtuz, gela utzi zuen.

Arratsaldea, azken prestaketak egiten igaro zuen.

Poltsa batean, izeko Luxit-ek, janariak jarri zizkion. Berak egindako ogi zahar batek irekitzen zuen zerrenda, ogi hauek bidaiariak eramaten dituzte, egun asko fresko mantentzen baitira. Zezen okel lehortu puska eder bat ere sartu zuen, ez baita pentsatu bezain azkar usteltzen, egosi eta jateko prest dago. Fruta ez zitzaion izeko Luxit-i ahantzi, intxaurrak eta ur lehorrak izeneko fruitu lehorrak, sakela hutsa betetzeko badira ere, eta freskoak, iparraldeko banana; ezagutzen duguna baino zapore eta zuku gehiagokoa, sagar batekin bukatzen dugu. Bestalde, joan den udaberriko ehizan hildako lautada zezenaen larru bat hartu zuen hotzetik babesteko. Aizto eder bat eta ezer gehiago. Gauean bukatu zuten dena eta Cristian lotara joan zen. Gau on pasa.

Goizean goiz jaiki zen Cristian, Burger-Beheko oilategian oilo zaharrak inor esnatu ez zuenean, bera oraindik ez baitzen esnatu. Gosaria, egunak, aurpegitik maindireak nola kentzen zituen ikusiz, hartu zuen. Hau izango zen denbora luzean, Burger. Behetik goizalde bat ikusiko zuen azken aldia.

Egurrezko zaldian zuen eserleku eder hura, Gaueko Tximistari jarri zion, ohore handiz. Etxeko guztiez gogoratuko zela esan eta gero, denei agur esan eta gero, etxeari azken begirada eman eta gero, geroaren bila joan zen, Cristian, egun eguzkitsu eta argi hartan.

Bere helburua, Jaunen Mendi Nagusietan zegoen. Aztien santutegi. Horretarako beti, mendien aurpegi zuzenari begira abiatu behar zuen; esaten dutenez mendi guztiak, Mendi Nagusiak begiratzen dituzte. Zuhaitzen enborren linea zuzenari begira beti, Hego Mendebalderantz zuzenduta baitaude, eta nola ez, Amelik irakatsitako teknika, izarrei begiratu.

Bi egun igaro zituen, Kit lurralde zabaletik irteten. Bi aldiz ikusi zuen eguzkia lo hartzen, bi aldiz lurralde guzian arratsalde zaharraren mantu laranja, zabaltzen, eta gauari sartzeko baimena emanez, iluntasunaren menpe eta izarren lagun, munduan zegoen lekurik ederrena bihurtuz.

Gauza ederrak gutxi irauten dutela eta, laugarren eguneko eguerdi aldean, Cristian gosea asetzeko, mendi barne batetara sartu zen, bertan bazkaltzeko asmotan. Gaueko Tximista askatu zuen bere kontura belarra jan zezan. Bapo jan eta gero, lo kuluxka bat botatzen ari zela, isiltasuna jabetzen zen leku hartaz.

Hau aprobetxatuz, izaera beldurgarriko izaki batzuk hurbildu zitzaizkion Cristian. Bost ziren, eta nomada antzeko bidaiarien janzkera zuten, hau bai, oso zatarki. Animalia larraz egindako jaka zahar batzuek jantzita zeuden. Gaueko Tximistak, egoera larria ikusirik, irrintzi gogor eta mendekari bat bota eta gero, saltaka ihesi zuen. Bitartean Cristian esna zegoen. Aurpegi ilun eta nazkagarri haiek ikustean ihes egiten saiatu zen, baina alferrik.

Lepotik, larruzko soka gogor bat jarri ondoren, abiatu ziren beraien kanpamendura.

Bidaia zeharo motza izan arren, Cristian gaixoari bukuezina egin zitzaion. Bide guzian, begi beltz batzuk, itzal baten zentzu nagusiak, jarraitzen zien, urrunetik eta beti distantzia mantenduz.

Heldu ziren azkenean, herrixka bihurtutako zelai hartara. Etxeak, egur eta oihalez egindakoak ziren; oso gaizki zainduak eta bakoitza bere zikinkerri piloarekin alboan edo barnean. Herriak, biribil antzeko bat osatzen zuen; erdian, etxe edo etxola ederrena zegoen, tribu hartako nagusiarena. Etxolak ez ziren nahikoak Cristianen eta bere bahitzaileen etorrera ikustera bildu zirentzako. Berehala, denak, emakume, agure, atso, zakur, ume, eta ahantzi zaidan besteren bat, bildu ziren Cristianen inguruan, ikusi, jo, atximurkak, e.a. egiteko; dena nahi zioten lapurtu, txapeletik praketara, baina gizon gihartsu eta handi baten orroek galarazi zuten. Nagusia zen, begirada hutsak denei belauniko jartzea behartzen duen horietako bat.

—Sar ezazue dorreko kartzelan —esan zuen hizkuntza zetar eta arraro batez— geroago erabakiko dut zer egin bere buruarekin jolas ala moztu, ja ja ja... —ahots zakar hark, barregura ematen ez ba zuen ere, herri guztia barre bihurtu zen, hortz eta hagin beltzatu haiek erakuts eraziz. Dorre eta gaztelu baten faltan, mendi tontor batean kokaturik zegoen etxola batera eraman zuten Cristian. Kartzela moduan zegoen prestatuturik; ez zituen ez leihorik ezta ere sarrera modukorik, zulo batetik sartzen zituzten sartu beharrekoak. Kartzela hura zegoen tontorra, alde batetik, amildegi txiki bat zen —Cristianen espezialitatea— azpian, zelatari bat jarri zuten; kartzelaren horma guzietan bezala. Bultzakada batez sarrarazi zuten Cristian gaixoa, zulo hartatik; hauts laino bat zabaldu zuen gela txiki hartan, ia arnasarik ezin zuela hartu, etzan zen, trapu, egur, larruzko jaka puskatu, e.a. en artean. Itxaropena kanpoan utzita,

geratu zen Cristian armiarme begira, beste gauza hobeagorik egiteko ez baitzuen egiteko.

Arratsaldea pasatzen ari zen, eta eguzkia gero eta beherago zegoen. Etxola zahar hartan ba zen zulotxo bat, xagutxoak sartzen ziren lekua, eguzkia bere altuera heldu zenean, iluntasunetik Cristianen begietara, izpi miresgarri bat zuzenduta joan zela. Mutikoa, pozaren pozarekin begiratzera joan zen. Amildegi txiki hura zegoen lekutik zetorren; ikusten zenez, zelaia eta gero, mendi eder batzuk altxatzen ziren. Zerbait bururatzeko asmotan, hasi zen gela hartatik ibiltzen batetik bestera. Nahigabe, presaka jaikitzean, alkandoratik eroritako gauza bati ostikada eman zion; aitonak emandako liburu gorria zen. Burutik zebilkion ideiatxoaren azalpena bilatzeko asmotan ireki zuen sorpresa kutxa hura. Eta zer aurkituko lehenengo orrietan, kometa bat nola egiten zenaren azalpena. hegaz egiteko gailu harekin irtengo zuen amildegia zegoen aldetik. Baina eragozpenak ere azaltzen direla eta, kometa hari indarra nork eman behar zuen. Honek lur jota utzi zuen, trapu zaharraren gainean etzanda.

Cristian zegoen lekutik, ez oso urrun, itzal beltz bat, isiltasunaren pausuekin zetonen. Burua altxa eta etxola zahar bat ikusi eta gero, abiatu zen beherago zegoen zelatariarengana. Sasi tartetik ibili zen. Hurbiltzean, zelatariak entzun egin zizkion isiltasun pausu haiek, eta berehala abiatu zen, sasi artan zer zebilen ikustera. Orduan, zerutik baletor bezalaxe irten zion itzal beltz harrek, hankak aurretik zituela; zapalduz, pisu guzia gorputzaren gainean jarri ondoren, utzi zuen zelataria zerraldo, hilik. Itzal beltz harrek, Cristianek bakarrik entzun zezakeen irrintzia bota zuen. Itzal misteriotso hura, Gaueko Tximista zen.

Cristian etzatetik jaiki eta zulotik begiratu zuen. Bien artean, txistuen bidez hitz egin eta gero, akorde jarri ziren.

Ilundu arte egon zen Cristian kometa madarikatu hura prestatzen. Azkenean, bahitzailatzat zituen munstro haiek heldu baino lehen pentsatuta zuten plana martxan jarri zen. Bertan hartutako oihal zahar, egur, larruzko soka bat, eta beste gauza askorekin egindako kometa hura, zulotxo zegoen aldera jarri zuen. Zaldia bitartean ordezkatzera etorri zen zelatari, ia zerraldo zegoen hura ezkutatzen ari zela, deitu zion, txitu baten Cristianek. Larruzko soka, zulotik behera bota zuen; bestea kometari lotuta zuen bitartean. Gaueko Tximistak, hortzekin larruzko soka gogor hura heldu zuenean, eta Cristianen beso eta eskuak kometa eder hari itsatsiak zituenean, eta hankak orma zahar hari kontra jarriak zituenean, askatu zen Cristianen ahotik txistu soinu bat gau isil haren txoko denetan entzun zela. Gaueko Tximista tira eta tira hasi zen, lanerako idiek egiten duten bezala, eta horma zaharra erori egin zen. Berehala Tximista baino azkarrago irten zuen, zelai zabalean; kometa hegaz hasi zen, Cristianen harriduraren aurrean.

—Hegaz!!... hegaz!! —algara eta builaka Cristianek.

Dagoeneko herrixka prest zegoen Cristianen kontura festa bat egiteko, eta tramankulu hura hegaz ikusi zutenean, denak, eta denak esatean, ume, zahar, eta denak esan nahi dut, denak Cristianen atzetik hasi ziren zoraturik bezala. Etxolaren alboan zegoen zelatariak boomerang bat atera zuen, oso zorrozuta bera eta Cristiani bota. Cristianen kometa zoragarria gehiago altxa zenez, Gaueko Tximistaren indarrari esker, larruzko sokan jo eta zatitu egin zuen; Cristian eta bere zaldi laguna aldendu araziz. Cristian, zeruetako erreinetara igo zen, eta herrixka gero eta txikiagoa ikusten zen. Dagoeneko laino tartean, itxaropenak berreskuratuta,... beldurrak jaten zizkion buruko pentsamenduak.

Haizeak lagunduta, oso urrunera joan zen, ala ere ez zekien zenbat, gau hartako iluntasunak norabidea galdu baitzion.

Gose handia zuen, kometan zintzilik egoteak gosea ekartzen baitu. Haizea ere gero eta ahulago zegoen. Kometa, altuera galtzen hasia zen dagoeneko, denbora luze bateko hegaldia egin eta gero. Cristian konturatu ez bazen ere, mendi eder baten hurbil zebilen, eta bertako haize bolada gogorrez lagunduta, kometa eder baina zahar hura puskatu egin zen; Cristian ezerezaren kargu erortzen utziz. Istant patetikoak izan ziren Cristianek bizi izan zituenak. Azkenean:

—Krashfs... plotxf!!! —Cristian leku biskotsu baina bigun baten gainean erori zen. Biskositate hura gorputz guzian zuen. Bera eserita zegoen lekua, egur xafla antzeko batzuk ziren. Haren azpian berriz, lasto, egur eta adarrez egindako habi batean zegoen! Berak ez ba zekien ere, habi erraldoi batean zegoen arrautza erraldoi, baita ere, baten gainean erori zen. Oso nekatuta zegoenez loari eutsiz, seko geratu zen.

Harkaitz irten baten gainean kokaturik zegoen habi erraldoi bat zen, Cristianen orduko ohea. Bera bezalako zazpi sartzen ziren leku hartan. Guzti honetaz konturatu gabe, lo hartu zuen.

Goizaldean, luma eder batzuk biltzen zuten, Cristianen gorputza. Antza denez, habiaren jabe zen txoritza bat, eserita zegoen bere semetxoa iruditzen zitzaion, Cristianen gainean. Egun argiz konturatu zen zeinen saltsan sartu zen, eta txoritxoek egiten dituzten sinuak egiten hasi zen. Txio-txioak entzun ondoren eta berehala, txoritza hura, janari bila joan zen; txikiaren gosea asetzeko. Cristianen harridura eskultura bihurtu zen, hegazti hura ikustean; gutxienean, bi zaldi ederren gorputza zuen, bere bi hegoek, Tra ibaiaren zabalera gainditzen zuten, eta bere begiak heriotzaren ispilua ziren. Cristianen begitxo harrituak beherantz, amildegirantz begiratu zutenean, bizkar hezurretik hotzikara batek igaro zion; mota guzietako abereak, gizakumeak eta abarren hezurren puska pilo bat zegoen.

Ihes egiteko astirik ez zegoen, txoritza hura berriro han baitzegoen, hanketan unxi bat baillitza, orein bat zekarrena, bere erpe zorrozten tartean. Saltsa hartatik mirari batek bakarrik atera ziezaiokeen. Itxaropen txintik gabe, arrautzatik irtengo balu bezala, zuen gorringo itxura eta gorputzean itsatsi zituen luma batzuekin, hasi zen txoritxoarena egiten, janari eske. Ama denek arrazoi dutela eta, gosea asetzeko orein eder hura txikitzen hasi zen. Mutur eder harekin, seme onartuaren aho txikian, zati txikiak sartzen hasi zen, munduko lasaitasun guziarekin. Cristianen goseak joan beharra izan zuten, sabelean sartu zion haragi pila harekin. Zeharo asea loak hartu zuen Cristianek. Gutxitara eta mendi hartako haize freskoa bizkarrean sumatzean, esnatu egin zen, geure pertsonaia. Oso urrunean ikusi zuen, habiatik altxa eta gero, "amatxo" xarmant hura, zeharo lanpeturik, bere lurraldetik gizon multzo bati, bidali nahian. Ez ba zekien ere, gizon multzo hura, beraren bila zenbiltzan bahitzaileak ziren. Ez zuten ez, merke saldu bere errenditzea, zaharoko borroka mantendu baitzuten, hegaztiak eta gizon multzoak.

Berehala hasi zen Cristian ihesean pentsatzen, leku eta aukera guziak miazten egon baitzen. Azkenean lehen aipatutako miraria heldu zen, Gaueko Tximista; ahotik larruzko soka hura zekarrela. Mendiaren goialdean zegoen, soka habiaren urrunera heltzen zenez, ez zuen, Cristianek lan handia egin, soka miresgarri hartara heltzeko. Tira eta tira egin ondoren, eta denborarik galdu

gabe eseri zen Cristian zaldiaren bizkarrean, eta abiatu ziren zitzu bizian, denborarik galdu gabe, mendian behera. Ez zuen asko tardatu, hegaztiak, sumatzen, bere "semetxoaren" falta habian, ezen, berehala utzi zituen bakean, gizon haiek eta hegaldia altxatuz joan zen zaldi haren atzetik.

Gaueko Tximistaren abiadari probetxu atereaz, berehala zeuden mendiaren mantalean, aranaren ateetan. Zuhaitzik gabeko zabalkunde hura aproposa zen, hegaztiarentzat, iheslariei atzaparrak gainean jartzeko, baina zaldiaren hanka eder haiek galaraziko zuten.

Hark, katu eta saguaren arteko lasterketa bat zirudien. Gaueko Tximistaren hankek, inoiz baino azkarrago egiten zuten korrika, hegaztiaren atzamarretan ez bukatzeko. Cristianen bihotza, tarrapata bat bezala ari zen taupatzen. Ezin zen presio gehiago jasan. Zaldia, patsa zeriola, dena emanda zihoan; bere ile beltzak haizean dantzatzuz, mugimendu konstante bat zeramaten. Hegaztia hurbilduz joan zen, hegoekin heriotza zirudien itzal bat eginez. Txoritzar haren erpeek Cristianen ileak orrazten zituen, burua jaisten ez zuenean. Hegaztiaren orroak, haran guztian entzuten ziren. Zaldia, batere leloa, untxiaren moduan zuhaitz, harri, eta itzal egiten zuten edozein lekutan sartzen zen, instant batez hegazti hartatik ihesteko. Azkenean, hazan zabal haren bukaeran, baso bat, Cristian eta Gaueko Tximistarentzat, gehiago azalduko ez zitzaizen azala garbi ateratzeko aukera zen; hegaztiarentzat bereiz, semeaz gain beste gauzarik ez galtzeko aukera zen. Txoritzar hark, zeruan jenio txarrez eta mendeku gogoz betetako parabola bat marraztu zuen, gorantz. Animalien artean ulertzen direlako edo, zaldiak, berehala ulertu zituen, hegaztiaren asmo txarrak; indarrak ezerezetik aterata, bikoiztuz, ahal zuen zailen jarri zion hegaztiari. Hala ere, ia zeruen sabaian, txoritzar hark gorputza "kamikazea" bezala jarri ondoren, hegoak okertuta eta muturra aterata, zuzendu zuen beherakako norabidea eta abiada bikoiztuz gero eta hurbilago jartzen hasi zen. Cristian dagoeneko zaldiaren bizkarrean etzanda zegoen, erasotik babesteko prest. Bere belarria zaldiaren bihotzaren parean jarrita, bien taupada nahasia entzuten zen. Urduritasuna eta beldur izoztuak bultzatuta, zaldiaren azalari heldu zitzaion, itsasertzetako lapak bezala harkaitzari. Bihotz taupadak hilerrirako bidean, hildakoa daramatenean, jotzen duten danbor hotsa iruditu zitzaion, gero eta polikiago, polikiago, polikiago...

—ZZIIIIUUUUUU...!!! —tximista bezala pasa zen hegazti beldurgarri hura, Cristian eta Gaueko Tximistaren bizkarren gainetik, hauek basoan sartu ziren heinean.

Larrialdia, amaitu zen. Orro gogor eta latz bat entzun zen lurralde hartan, Cristianek oraindik ametsetan entzungo zuena. Cristianen izerdia berehala izoztu zen, alkandoraren, bizkar alde guzia puskatu ziola ikustean; bere bizia, bi milimetrotan egon zirela pentsatzeak ere gau asko mantendu zion esna.

Zaldi eder hura, bizitzan eduki zuen lagunik handiena bihurtu zen, momentu hartatik, bizia salbatuz gain, ausardia erakutsi baitzuen.

Gau txarrak, egun onak ekartzen dituela eta, lurralde baketsu eta eder batean sartu ziren.

Gaua oinez igaro ondoren, txoritzar harrek jarraituko zien beldurrarekin, lurralde epel, lasai eta bistaz baketsu batetara heldu ziren. Hemen, mota guzietako zuhaitz, landare eta abereak zeudela ikusirik, leku aproposa iruditu

zitzairen atsedenaldira bat hartzeko, bidai neketsu hartan. Zaldiarentzat belar ugari zegoen, eta fruta nahiko, Cristianen gosea asetzeko.

Etzan ziren beraz zuhaitz eder baten azpian eta hasi ziren denetarik jaten; aseta aurkitu zirenean, loalditxo bat egitea ongi iruditu zitzairen. Lurralde hartan, beldurtuko zituen ezer ez ba zegoen ere, Cristian ez zegoen oso ziur lurrean lo egiten, eta zaldiari erabakia azaldu eta gero, joan zen bada, lehen ikusi zuen zuhaitz orritsu batetara, lo egitera. Txoritxoaren laguntza pittin bat eta neke kantitate handi batekin, lortu zuen zerbait deskantsatzea.

Arratsaldean sartuta zeuden dagoeneko, eta txoritxo kantari batzuk, Cristianen ametsak esnarazi zituzten. Txoritxoaren kantu alai hark, "Crisstiaaan..." esaten zuela zirudien, eta Cristianen loa esnatu zen:

—Ez amatxo, pitin bat gehiago utzidazu, faborez —jakina oraindik ametsetan— aitari geroago lagunduko diot...aaauuggghh...!!! —eta ohetik jaikiko balitz bezala:

—Irtrisst.. plamp!! —zuhaitzetik erori zen, txorien barreen artean.

—Bai barre egin ezazue, ikusiko duzue,... —esan zien Cristianek, pixka bat haserreturik, modu horretan esnatu zelako.

Txistu egin zuen, Gaueko Tximistari deitzen, baina bigarreanean ere ez zen azaltzen; hau ez zen batere lasaitzekoa, azkenaldi honetan, Cristian, ez baitzen zaldi hura gabe, ezer.

—Agian, gaua igarotzeko lekuren bat aurkitzera joan da, edo lurraldea miatzera... —ez ba dakizue ere, oso ongi hezita zegoen Gaueko Tximista-edo agian...bahitu egin dute!— harridura aurpegiarekin —ai, amatxo, eta orain, nik zer egingo dut? — zuhaitzei begira. Eta erdi negarrez, joan zen Cristian, ezagutzen ez zuen bide, eta lurralde batetik bakarrik.

Ez zebilen batere oker Cristian, zaldiaren egoerari buruz. Baina nork bahi zezakeen halako zaldi handi eta indartsua? Gizon bat baino gehiago izan behar zuten, eta sareez baliaturik, beste modu errazagorik ez baitago Gaueko Tximista bahitzeko; gainera, gutxi bada ere, lurraldea ezagutu behar zuten, ezin baita, holako "zaku" batekin oso urrutira joan; eta gizonak ez badira...?

Cristian, orain hain ederra iruditzen ez zitzaion lurraldetik joan zen, triste, burumakur, zaldiaren arrasto bat ikusteko asmotan. Bat-batean, ez oso urrunetik, zaunka indartsu batzuk entzun zituen; bi ala hiru zakurrenak izan zitezkeenak. Zaunkak gero eta hurbilago entzuten hasi ziren, beraz Cristian, bada ez bada ere, zuhaitz batetara igo zen, han asko baitzeuden.

Cristianek uste zuena baino zakur handiagoak azaldu ziren zuhaitz azpian, bere atzetik zenbiltzan! Beraz zaldia bahituta zuenak bidali zituen. Metro eta erdiko zakurrak ziren; lur ilun kolorekoak eta begi urdin distiratsutakoak; urrezko txapa bat zuten katean, eta gainera oso ongi zainduta zeuden, bere sabel ederrei begiraturik: zakur haien jabeak, diru asko zuela zirudien. Zakur bi haiek, zuhaitzaren azpian geratu ziren, lasai, Cristian edo beraien arteko asper lehiaketa nork irabaziko zain. Lehiaketa, berdindurik geratu zen; zakurrei deika. Hauen zaunkei erantzunez, zuhaitz gora begiratu zuen... Cristian ikusteko. Gizon hark gaiztoa ematen ez zuenez, Cristian "errenditu" egin zen, gizonaren beso gihartsuetara erortzen utziz.

Gizonak, momentu hauetan ohiz egiten diren galderak egin ondoren beraren etxera gonbidatu zion. Cristianek bideko lasaitasuna aprobeztatu

zuen, zaldi beltz batez galdetzeko, baina ezer gauza askorik jasota erantzunez, geratu zen Cristian hits. Gizon hark zakurrez gain emazte eder bat ere ba zuen; ederra bi alderdietan, atzealde ederrak ere bai baitzitu. Afari goxo bat dastatu ondoren, bi alderditako historiak entzun ziren; ezagutzen duzuen, Cristianena eta gizon arraro haren familiarena; entzun zenez, lurralde hartako erregearentzat egiten zuten lan, eta ikusten zenez oso gustura, ez baitzen batere txarra aipatutako errege hura. Gau luze hartan, gauza asko kontatu ondoren, konfiantza etxean sartu zenean, zaldiari buruz zerbait entzun zuen. Kontatu zuenez, erregeren soldaduek jaso zuten basotik, bakarrik eta hain ederra ikustean, errege oso kiskillosoa baitzen gauza horietarako. Gazteluaren ukuilu errealetan omen zegoen, jaki eta kapritxo guziekin, honek Cristian asko lasaitu zuen.

Gaua etxe hartan igaro ondoren, goizean goiz, gazteluko gortea esnatu ez denean, oraindik, abiatu ziren bada gaztelurantz, zaldia berreskuratzeko asmotan.

Bisita ordua oraindik ez bazen ere, eta baso zaintzailearen laguna izanik, salbuespen bat egin zuen erregeak, Cristian sartzen utzi zuen. Polintonetik zetorrela, Kit lurraldean, Tra ibaiak zeharkatzen duen lurraldetik zetorrela etab., guzi hori esan eta berresan ondoren, errege pittin bat gorra eta zaharra baitzegoen, eta oso triste bere aldetik, onartu zuen erregek, zaldia ikustera joatea; Zaldiak Cristian ezagutzen ez bazuen, berarekin geratuko zelaren hitzarmenean geratu ondoren, errege ez baitzen asko fidatzen, sartu ziren ukuilu errealetara. Han, beste zaldi ederrez inguraturik, zegoen, geure Gaueko Tximista. Ikusi eta berehala, zoroak jarri ziren biak, elkar ikusteaz; lagunentzat, oso lagunak direnean, gau bat ikusi gabe egotea denbora asko baita. Erregeak azkenean, onartu zuen bere errua eta biak gonbidatu zituen denboralditxo baterako, gazteluan igarotzeko... bere alaba eta guzi noski...

Oso motzak iruditu zitzaizkion Cristiani oporralditxo haiek bi aste oso egon bazen ere. Uda-aldeko gau haiek, zeru izartua ametsen erreinu bihurturik, erregeren alabarekin gazteluko dorrean, ahantz ezinak bihurtu zitzaizkion Cristiani; egia esanda neskatxa gazte hura oso liraina baitzen. Beraz, bere amets, kostatako ametsa, azti bihurtzea, egi bihurtzera joan ziren zaldia eta biak; poltsikoak janariz eta bidaiarako beste gauza askoz beteta eta, berriz bueltatuko zenaren hitzarekin joan zen Cristian, ... zeharo maitemindurik leku eta ... neska hartatik.

Erregearen zientzialari eta astrologo batzuez lagunduta, norabidea zuzendu eta zehaztu zuen Cristianek, helburu zuzena lortzeko. Orain, lautada luze batzuk igaron ondoren, urrunetik ikusten ziren mendi Nagusietara abiatzea besterik ez zuen; baina ez zen espero bezain erreza izango azken pausu hau, zeren, lautada honetan —Mugarena izeneko— eguraldi aldaketa gogorragatik ezaguna baita, eta Jaun Nagusien Santutegia babesten baitu; esaten dutenez bertakoek, Jaunek jarritako froga gogor bat da, bertara urreratzen ausartzen direnentzako.

Eguraldi txarra hasi zen, euri-jasa eta haize gogorrekin. Cristian eta Gaueko Tximista, ongi babestuta zeuden, arropa bero eta handiekin. Bidaiako lehen eguneko arratsaldean, bordatxo zahar bat aurkitu zuten zelai erdian, eta denboraldi harrek berdin jarraitzen zuenez, atsedenalditxo bat hartzea pentsatu zuten. Iluntze aldera, gosea ase ondoren, lurralde haietako artzain bat sartu zen bordara, Cristian eta zaldiaren sustorako. Oso apala zirudien, baina

behin eta berriro Jaun Nagusiak zerrikeriaz bedeinkatzen zituen, denboraldiak ardiak izutzen baitzizkion. Cristianen ametsak gau hartan, Jaunen eraginari buruz lurraldeko jende haiengan joan zen; aztiak, aitonak zioenez onetarako izaten baitziren eta ez txarretarako, jende apal hari izutzen. Ez zitzaion buruan sartzen, bere etorkizuna mendi haietan bukatuko zela, baina bihotzeko indar gogorrako batek, joatera bultzatzen zion, behin ere ulertuko ez zuen indar boteretsu bat.

Hurrengo goizean, Cristianek amestu bezala, eguraldia hobetu zuen, hainbesterainokoa izan zen onerako aldaketa, ezen arropa astunak poltsan sartu eta ia alkandora hutsean joan zela; bero handia egiten baitzuen. Bidai bakarti hura, Jaunek gerora, bere pentsamenduetan eragingo zuten pentsatzen hasi zen, ezin izan zuen neurtu noraino heltzen zen Jaun misteriotsu haien boterea eta frogan jartzea bururatu zitzaion. Eguerdi aldera, eguzkiak gogorren jotzen zuenean, zalditik jaitsi eta, lurlean belauniko jarri zen, esanez:

—Hain boteretsu zareten, edo esaten dutela zaretela!!! —builaka— froga egin ezazue, aurrean duzuen mutiko txiki honekin, ea izutzen duzuen behingoz,...! —zeharo arro jarri zen.

Jarraitzen joan zitzaion artzain zahar hark, orduan oihukatu zion haserre:

—Zoraturik al zaude mutiko!!! —eztarriak irtengo balio bezala— Jaunek ez dute gupidarik inorengan!!!; arren Jaun Ohoretsuok —errukigarri jarri zen artzaina— ez iezaiozue kasurik egin, mutiko bat besterik ez baita —baina Cristian ere haserretu egin zen:

—Nola? Zeuen boterea frogatu nahi ez, ala botererik ez duzue? —artzain zaharra zeharo izutu zen eta txintik esan gabe saltaka joan zen, bere makilaz lagunduta.

Urrunetik berehala, laino ilun eta zatar batzuk azaldu ziren. Tenperatura jaisten hasi zen ia izotzera heldu arte. Gutxitara elurra hasi zuen, Jaun Nagusiak, haserre zeuden.

Cristianek, bere, oihuka errepikatu zuen ausardia erakutsi behar zuen, eta berriro arropa astunak jantzita, abiatu zen ahalik eta azkarren, elurrak den estali baino lehen. Horretarako ez zuen asko egon beharko, berehala estali baitzen, elurrez dena, ia gerriraino heltzen zitzaiolarik, Cristiani. Liburu gorriari eskua sartzeko momentua zen; ireki eta, etxola bat nola egin bilatzen hasi zen. Askotardatu bazuen ere; hotzarekin ia ezin baitzituen behatzak mugitu, azkenean izotz eta elurrarekin egiten diren etxola bat aurkitu zuen, sukaldaritzako aipamenaren ondoren. Gutxitara, bientzat, zulo eder bat egina zuten, zaldiak eta biak, zaldiak ere parte hartu baitzuen.

Jaun Nagusiak, errendituzat emango balira bezala, elurrari etsi zioten, eta onartuta zegoela esateko, zaldi zuri eme bat bidali zuten. Zaldien atean amodioa dagoela eta, Gaueko Tximistak, pausuz pausu jarraitzen zuen, "Elurretako Distira" hura. Lilurak, beraz heldu ziren, mendiaren malda hasierara.

Igoera ez zen oso gogorra izan, eguraldia asko hobetu baitzen. Azkenean, gizon zahar bat zegoen sarreran zain. Hurbiltzean, Cristian lotsatuta geratu zen, harrিতuta ere gelditu bazen ere, gizon hura, lautadako artzaina zela ikusirik; eta horrela izena zuen, bera baitzen, Santutegi hartako ikasleen artzain. Sarrera hura, harriz egindako ate eder batez osatuta zegoen, bertan zituen eskulturak, aipatzekoak izan ziren, Cristianentzat, gero bere familiako eta semeei istorioak

kontatzean. Sarrera hartatik, gela zabal batera joaten zen, bertan zaldiaren eta poltsen kargu egiten zirelarik, ipotx batzuk. Gero eta artzainak lagunduta, pasadizo eta, tunel ugarietatik igaro zuten, hainbeste, ezen Cristianen buru azkarrak ezin izan zituen kontatu. Azkenez, mahai biribil batetara hurbildu ziren, bertan Hamahiruak zeudelarik; Hamahiruak, Jaun Nagusien partaideei deitzen zaiela jakinik, oso ohore handia izan zen Cristianentzat, bere maisu izango zirenen alboan edo hobe esanda erdian esertzea; zeren Cristian erdi erdian eseri zen, hamahiruek, artzaina barne zelarik, Cristiani ongi begiratu zezaten. Denboralditxo luze xamar bat isiltasunean igaro ondoren, denak hitz egiten hasi ziren eta hark, lagun arteko afari bat ematen zuen. Azkenik erdi erdian eserita zegoen gizon zahar batek ozenki hitz egin zuen:

—Jaunak, nirekin ados bazaude, mutiko honi azken frogatxo egin eta gero, epaia esango dugu —Cristian zuri zegoen, bere burutik, instant batean, pasa zituen momentu on eta txar guztiak pasa zirenak bere bidai hartan.

—Emadazu, Cristian poltsikoan duzun liburu gorri hori —barre txiki batekin eskaini zion. Ikusi eta besteei pasa zien.

—Ikusten denez oso maisu onak izan dituzu, beraz garbi dago... — Cristianen bihotza taupaka zebilen— onartua izan zara.

Ordutik aurrera Cristianentzat bizitza eder bat itzaropenez beteta azaldu zen. Ikasketak bukatu eta, Azti Nagusi egin ondoren, Hamalagarrenen mahaia osatu zuen, orain, berekin hamalau baitziren. Baina guzi hau, ospetsua izan eta gero gertatu zen: Hirurogei urtetako gudan, bakea zinatzea egin baitzuen, Lau Erregeen misterioa argitu zuen, Burdinazko besoaren boterea deuseztatu... eta beste hainbat gauza; azkenean, Amelik emandako eraztuna jantzi zuen, bere jaioterrira itzuli zen, familia ere osatu zuen... Baina hauek beste istorio batzuk dira, noizbait kontatuko diren istorioak.

Xagutxo azkarra bere etxetxora itzuli zen, Ontza zaharrak esandako guztia idaztera. Ontza zaharra ez zuen inork gehiago ikusiko.

Xagutxo oso ospetsua egin zen, ez noski idatzi zuen liburuagatik, liburua josteko zuen trebetasunagatik baizik. Ontza zaharraren liburua bihotzean gorde zuen, ilargi beteko gau batean beste bihotz entzule bat itxaroten.